

NOLA EGITEN DUZU LO? Testa

1. Zenbat denbora pasatzen duzu lo hartu arte?
 - a. 15 minutu baino gutxiago.
 - b. 30 minutu baino gehiago.
 - c. 60 minutu baino gehiago.
2. Zenbat ordu egiten duzu lo?
 - a. 6 ordu baino gutxiago.
 - b. 6-8 ordu artean.
 - c. 8 ordu baino gehiago.
3. Altxatzen al zara komunera gauean?
 - a. Bai, bi aldiz baino gehiagotan.
 - b. Behin edo behin.
 - c. Inoiz ez.
4. Ohean zaudela, erabiltzen duzu mugikorra?
 - a. Ez, inoiz ez.
 - b. Mezurik daukadan begiratzen dut edo elkarrizketak izaten ditut.
 - c. Hurbil uzten dut, badaezpada ere.
5. Logelan...
 - a. telebista ikusten dut ohean.
 - b. telebista ikusten dut lokartu arte.
 - c. ez daukat telebistarik.
6. Nire logela gauez...
 - a. ilun dago.
 - b. leihotik argitasuna sartzen da.
 - c. beti uzten dut argiren bat piztuta.
7. Oheratu aurretik...
 - a. Ariketa fisiko bizi-bizia egiten dut.
 - b. Sudoku zailak egiten ditut.
 - c. Jarduera lasaigarriren bat egiten dut: dutxatu, arnasketak...
8. Afaria, normalean,...
 - a. arina izaten da.
 - b. mokaduren bat jaten dut.
 - c. oparoa izaten da.
9. Gauez zenbatean behin esnatzen zara?
 - a. Inoiz ez.
 - b. Behin edo bitan.
 - c. Hirutan baino gehiagotan.